

Ebazpena: R 36/2024

Espedientea: 88/2022

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena SEVSA zergapekoaren 2009ko 7. aldiko BEZari dagozkion berandutze-interesak itzultzeko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 88/2022 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2008ko martxoaren 12an, ZAEAk 1/2008 gatazka planteatu zuen SEMLren egoitza fiskalari zegokionez.

Arbitraje Batzordeak 2008ko azaroaren 24an 1/2008 Ebazpena eman zuen, eta horren bidez entitatearen egoitza Bizkaian zegoela erabaki zuen.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten Auzitegi Gorenean, eta 2010eko otsailaren 4ko epaiaren bidez ezetsi zuten (ECLI:ES:TS:2010:1019).

Epai horretan honako hau adierazten dute G taldeari dagokionez:

«Horrela, taldeko sozietate guztien —baita parke eolikoak ustiatzen dituzten sozietateen ere— administrazio-lanak (finantzaketa, fakturazioa, kontabilitatea, zerga-aitorpenak, kobrantzen eta ordainketen kudeaketa) zentralizatuta daude eta Bilbon egiten dituzte GERen langileek». Era berean, zera dio: «GER administratzaile bakar gisa ageri da, ez bakarrik parke eolikoak ustiatzen dituzten pertsona bakarreko sozietateen administratzaile gisa, baita G taldeko beste sozietate batzuen administratzaile gisa ere». (...) «halaber, haren administratzaile guztiak, zeinei baitagokie sozietatearen enpresa-zuzendaritza, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi dira».

2.- 2008ko martxoaren 12an, ZAEAk 2/2008 gatazka planteatu zuen, SIE taldeko zazpi sozietateren (SIE T, SIE; L, S.E; SP, SIE; TDC, SIE; V, SIE; T eta SIE A) egoitza fiskalari buruzkoa, ulertzen baitzuen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza arrunta G taldeko beste sozietate batzuek (berezi GER sozietateak) egiten zutela, eta, ondoren, I taldeko beste batzuek, Bizkaian.

Arbitraje Batzordeak 2009ko urtarrilaren 28an 2/2009 Ebazpena eman zuen, eta zazpi entitateen egoitza Bizkaian zegoela erabaki zuen.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten Auzitegi Gorenean, eta 2010eko ekainaren 16ko epaiaren bidez ezetsi zuten (ECLI:ES:TS:2010:3431).

Epai horren zuzenbideko laugarren oinarrian honako hau adierazten da:

«Sala honek antzeko errekurtsu bat ebatzi du 2010eko otsailaren 4ko epaian (86/09 errekurtsua). Epai hori 2004ko ekitaldian SEML entitateak zuen egoitzari buruzkoa zen. Doktrina-batasunaren izenean eta inguruabar berak egonik, orduan adierazi genuenari jarraitu behar diogu, eta errekurtsua ezestea dakar horrek».

Garrantzitsua da, hortaz, 2/2008 gatazkako zazpi sozietateen egoitza fiskala zehazten duten inguruabarrak eta 1/2008 gatazkako sozietatearenak baliokideak izatea.

3.- 2009ko urriaren 30ean, ZAEAk SEMGren egoitza fiskala Coruñaetik Bizkaira aldatzeko eskatu zion BFari.

2010eko ekainaren 22an, BFAk proposamena onartu zuen, Ikuskapen Zerbitzuaren 2010eko apirilaren 13ko txostena eginda. Honako hau nabarmentzen da txosten horretatik:

«Administrazio-lana non egiten den zehaztea ahalbidetzen duten arauak edo irizpideak aztertzeko, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2010/02/4ko epaiaren paragrafo batzuk errepikatuko dira, eta, ikusiko dugun bezala, epai horrek antzeko kasu batean ematen du epaitza, aurrerago ikusiko den bezala». «Jasota geratzen da epaiaren oinarrian dagoen egitatezko kasua eta aztertzen ari garena ia bat datozela».

4.- Erabaki horretatik aurrera, eta ia jarraian, ZAEAk parke eolikoak eraikitzen ari ziren G taldeko hainbat sozietateren 90 egoitza-aldaketa baino gehiago eskatu zituen, baina BFAk ukatu egin zituen. Hori zela eta, zegozkien gatazkak planteatu zituzten Arbitraje Batzordean.

Arbitraje Batzordeak estatuaren jarreraren alde egin zuen gatazka hauetan: SIE ALTO DO SEIXALren 31/2010 gatazka (14/2013 Ebazpena), SIE CONESA Iren 32/2010 gatazka (7/2014 Ebazpena), SIE CARELLANAREN 3/2011 gatazka (18/2013 Ebazpena), SIE ALCOHUUJATEren 4/2011 gatazka (16/2013 Ebazpena), SIE CASTILLEJOen 5/2011 gatazka (19/2013 Ebazpena), SIE LA ESTRADAren 15/2011 gatazka (17/2015 Ebazpena), SIE MESA DE OCAÑAREN 6/2011 gatazka (1/2016 Ebazpena) eta SIE ODRAREN 7/2011 gatazka (2/2016 Ebazpena).

Auzitegi Gorenak ezetsi egin zituen BFAk gatazka hauei dagokienez planteatutako errekursoak: SIE ADS (2015eko ekainaren 18ko epaia, ECLI:ES:TS:2015:2707); SIE C (2016ko urtarrilaren 27ko epaia, ECLI:ES:TS:2016:211); SIE CA (2015eko abenduaren 15eko epaia, ECLI:ES:TS:2015:5332); SIE AL (2015eko abenduaren 15eko epaia, ECLI:ES:TS:2015:5327); SIE CAS (2015eko ekainaren 18ko epaia, ECLI:ES:TS:2015:2706).

Aurrekoa ikusita, BFA amore ematen joan zen Arbitraje Batzordeak ebazteke zituen gatazketan.

5.- Arbitraje Batzordearen 12/2016 Ebazpenaren betearazpenari lotua dago 88/2022 gatazka. Ebazpen horren bidez, BFAREN amore ematea onartu zen, SEVSAren egoitza fiskalari dagokionez (2016ko maiatzaren 3an proposatu zen), eta, bereziki, haren xedea zen argitzea zein administraziok hartu behar zituen bere gain 2009ko BEZari zegozkion berandutze-interesak.

6.- Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2017ko urtarrilaren 12ko epaiaren ondoren (Andaluziako Ekonomia eta Administrazio Auzitegiaren Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekursoan Ekonomia eta Administrazio Auzitegi Zentralak emandako Ebazpenaren aurka jarritako

errekurtsoa ebatzi zuen), ZAEAk 2009ko 7. aldiari zegokion zenbatekoa itzuli zuen: 3.280.012,24 euroko printzipala gehi 1.283.192,46 euroko berandutze-interesak.

7.- 2022ko maiatzaren 26an, ZAEAk BFari eskatu zion SEVSAren egoitza-aldaketak sortutako 5.876.911,78 euroko finantza-fluxuen bidalketa. Horietatik 3.280.012,24 euro estatuak bidegabe itzultako BEZaren printzipalari dagozkio, eta 1.283.192,46 euro estatuak bidegabe itzultako interesei.

8.- 2022ko uztailaren 14an, BFAk uko egin zion berandutze-interesak bidaltzeari.

9.- 2022ko irailaren 14an, ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zion BFari, eta 2022ko urriaren 11n uko egin zion BFAk.

10.- 2022ko azaroaren 11n, ZAEAk Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen gatazka, zeina 88/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua arabera, Arbitraje Batzordeak honako eginkizun hauek ditu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak eskumena du ebazteko zein administraziok hartu behar dituen bere gain egoitza-aldaketa batek eragindako BEZaren itzulketa atzeratzeak sortutako berandutze-interesak.

2.- Arbitraje Batzordeak dagoeneko ebatzi zituen honen antzeko bi kasu (18/2017 eta 45/2017 gatazkak ebazten dituen 74/2022 Ebazpena), zergapekoen egoitza fiskalari buruzko desadostasunaren ondorioz BEZaren itzulketa atzeratzeak sortutako berandutze-interesak itzultzeko eskumenarekin lotutakoak.

Ebazpen horretan erabaki zen BFAk itzuli behar zituela.

74/2022 Ebazpenaren aurka jarritako 1006/2022 errekurtsua ezetsi egin zen Auzitegi Gorenaren 2024ko urtarrilaren 15eko epaiaren bidez (ECLI: ES: TS: 2024:198), eta Arbitraje Batzordearen Ebazpena berretsi zuen.

BFA saiatu da hasierako eta amaierako alegazio-idazkietan aurreko eta oraingo espedienteen artean desberdintasunak aurkitzen. Hain zuzen ere, SIE C eta SIE ADSren espedienteetan, ZAEAk ez zuen bere gain hartu printzipala itzultzea (eta, ondorioz, ezta interesak ere); baina SESArenean, berriz, itzuli egin ditu printzipala eta interesak, Auzitegi Nazionalaren 2017ko apirilaren 6ko epaiak hala eskatuta. Ildo horretan, BFAk alegatu du epai judizial bat dagoela ZAEAk zergapekoari 2009ko BEZa itzuli behar diola agintzen duena (baina egiteke dagoen egoitza-aldaketaren emaitzaren arabera), eta, beraz, atzerapenak sortutako berandutze-interesak hari egotzi ahal izango zaizkiola.

Gai horri dagokionez, nabarmendu behar da Arbitraje Batzordeari dagokiola zergapekoaren egoitza fiskalaren eta zergapekoaren printzipalaren eta interesen itzulketaren gaineko eskumena zehazteko eskumen eskusibo eta baztertzalea, eta Auzitegi Nazionalak ez dituela kontuan hartu (logikoa denez, gerokoak direlako) Arbitraje Batzordearen argudioak, ezta hura berresten duen Auzitegi Gorenaren epai ere.

Arbitraje Batzordeak berak 3/2018 Ebazpenean honako hau adierazi zuen: «gogora ekarri behar da Ekonomia Itunaren 66. artikuluan Arbitraje Batzordeari esleitzen zaizkion eginkizunak baztertzaleak eta eskusiboak direla, eta zerga-administrazioek Arbitraje Batzordera jo behar dutela haien eskumen-gatazkak ebazteko (Auzitegi Gorenaren 2014ko azaroaren 17ko epaia, 831/2013 errekurtsua 4. OJ; Auzitegi Gorenaren honako epai hauek aipatzen dira: 2008ko uztailaren 10ekoa, 2399/2006 errekurtsua, 7. OJ; eta 2012ko azaroaren 12koa, 2304/2011 errekurtsua)».

Gauzak horrela, 74/2022 Ebazpenean aztertutako inguruabarrak eta argudioak gatazka honi *mutatis mutandis* aplikatu behar zaizkiola baieztatu besterik ezin dugu egin, eta, beraz, adierazitakotzat jotzen da, dagozkion ondorioetarako.

Horren harira, gogoratu behar da 74/2022 Ebazpenak (Auzitegi Gorenak berretsitakoak) honako hau adierazten zuela:

«Halaber, ZAEAk itzulketak zergapekoei aurreratu izan balizkie (nahiz eta administrazioen artean 2006ko maiatzaren 18ko Akordioak, bereziki Bidalketen Akordioa, normalean funtsak erabiltzeko atzerapenagatiko berandutze-interesik gehitu gabe gauzatzen diren), sortutako berandutze-interesak BFari eskatzeko eskubidea izango luke; itzulketak —gerora oker irizitakoak— aurreratzen direnetik, harik eta egoitza fiskalari buruzko gatazkek ebaztearen ondoriozko funtsak bidali arte sortutakoak, alegia».

Ezin ditugu baietsi, ezta ere, itzuli beharreko autolikidazioa aurkezten denetik egoitza aldatzeko eskaera egiten den arteko epeari dagozkion interesak; izan ere, prozedura hori, aurrekarietan jasota dauden aurrekariekin, BFAk berak ere has zezakeen ofizioz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea BFari dagokiola SEVSA zergapekoaren 2009ko 7. aldiko BEZaren autolikidazioaren ondoriozko berandutze-interesak itzultzea (ZAEAk aurreratu egin ditu), eta, beraz, administrazio batek besteari bidali behar dizkiola.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta SEVSARI jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Francisco Javier Muguruza Arrese.